2017-VI-09
Número **529.** zenbakia

ELA
EUSKAL SINDIKATUA
www.ela.eus

astekaria

# EDITORIALA

## 28 urte egoera prekarioan

**2016. urtea. ELAren afiliatu batek –Hezkuntza Publikoko Heziketa Bereziko lan-legepeko hezitzailea– salaketa sartu zuen Eusko Jaurlaritzaren aurka, 1988az geroztik behinbehineko kontratupean aritu delako lanean egiturazko lana eta lanpostu bat betez.**

**2017ko martxoa. EAEko Auzitegi Nagusiak arrazoia eman zion langileari eta ELAri, kontratazioa lege iruzurrekoa zela adieraziz eta Hezkuntza Saila langilea mugagabe kontratatzera behartuz, hau da, lanpostua behin-betiko bete bitartean langileari lan-legepeko mugagabeko kontratua egitea exijituz.**

**2017ko ekainaren lehena. Eusko Jaurlaritzak epaiari helegitea jarri zion, baina ekainaren 1ean argitaraturiko behin-betiko epaian, Auzitegi Nagusiak bere epaia berretsi du. Epai honek, agerian uzten du Hezkuntza Sailak eta Eusko Jaurlaritzan hamarka urtetan sistematikoki erabili duten iruzur kontratazioa. Izan ere, egiturazkoak eta ezinbestekoak diren lan eta lanpostuetarako administrazioak behin-behineko kontratazioa erabili du modu sistematikoan. Kasu askotan, hezitzaile honen kasuan bezala, hamarka urtetan zehar.**

**Hau da errealitatea. Erabat onartezina da administrazio publikoak enpresa piraten moduan jokatzea, oinarrizko beharrei erantzuten dien zerbitzu eta lanpostuetarako sistematikoki behin-behineko kontratazioa erabiltzea urte luzetan zehar. Honek langileen egonkortasun eta lan-baldintzei larriki eragiteaz gain, herritarrontzat ezinbestekoak diren oinarrizko zerbitzuei ere modu kaltegarrian eragiten die. Hezkuntza Sailak onartezina den jokabide sistematiko honi amaiera eman behar dio. ELAk, bere aldetik, egoera hau irauli arte mobilizatzen jarraituko du.**

#EmanBostekoa
Garaipenari!

LOADING...

INDARBERRITZEN

### Todo listo para la celebración del XIV Congreso de ELA este jueves y viernes en el Palacio Euskalduna de Bilbao

# ELA, DE CONGRESO

El equipo organizador apura las horas cerrando los últimos detalles para que el XIV Congreso de ELA, que se celebra el 15 y 16 de junio en el Palacio Euskalduna, de Bilbao, sea un auténtico éxito.

Este Congreso llega en un contexto general de ataque sistemático a los derechos laborales y sociales, y también al movimiento sindical y lo que éste representa. En nuestro caso, este contexto se caracteriza, además, por la absoluta intolerancia del poder económico y político frente a la interpelación que realiza ELA, llegando a negarnos el derecho que como sindicato tenemos a hacer propuestas en materia social y política.

Durante estos días, los 736 delegados y delegadas debatirán diagnósticos y reflexiones, y concretarán las líneas estratégicas que van a orientar nuestra acción en el futuro. Dos intensos días -la puesta en escena de otros muchos- en los que reflexionaremos sobre lo que es ELA hoy y hacia dónde queremos ir.

Como reza el lema del congreso, vamos a recargar fuerzas para afrontar los retos de los próximos años;
vamos a REFORZARNOS.

### INTENSO PROGRAMA

Lo más destacado de la jornada del jueves por la mañana será, sin duda, la defensa del informe de gestión, que será realizada por Adolfo Muñoz "Txiki", en su parte política, y por Amaia Muñoa, en su parte económica. Informe que será valorado por las organizaciones de ELA. Destacar, también, las intervenciones de las organizaciones invitadas, tanto nacionales como internacionales. El broche a la jornada lo pondrá el homenaje que realizará ELA a los denominados Artesanos de la Paz, organización que ha mediado para que el desarme de ETA sea hoy una realidad. Recordar, en este sentido, que uno de esos artesanos es Txetx Etcheverry, militante de ELA y responsable de la Fundación Manu Robles Arangiz Institutua en Iparralde, que no podrá estar en el Congreso de manera presencial por imperativo legal.

La mañana del viernes se dedicará al debate de la ponencia y las enmiendas presentadas, así como de las resoluciones. Por la tarde, se procederá a la votación y elección del comité ejecutivo. Un acto sorpresa pondrá punto final a los -esperemos- dos días de ricos debates.

### NOVEDADES DE ESTE XIV CONGRESO

La innovación en este XIV Congreso del sindicato no hay que buscarla ni en la línea ideológica ni en los cambios de personas o funciones. El elemento más novedoso del Congreso es la cuestión de género, más trabajada que nunca, tanto en el análisis socioeconómico como organizativo y de negociación colectiva. Otro elemento que entra con fuerza es la necesidad de mejorar la planificación del trabajo y la acción sindical. Otro tercer aspecto es la conexión del sindicato con las alternativas y la cuestión del cambio climático.

### NOVEDADES DE ÚLTIMA HORA

Está previsto que se presenten en el Congreso para su aprobación dos resoluciones más. La primera, sobre Inmigración y RGI. La segunda, sobre el proceso soberanista en Catalunya. Al cierre de este Astekaria, la resolución sobre el proceso soberanista de Catalunya no estaba terminada; por eso, sólo se incluye la relativa a la inmigración y la RGI. El resto de ponencias, tres en total, se han ido publicando estas últimas semanas.



### PROPUESTA DE COMITÉ EJECUTIVO

**Adolfo Muñoz** (Secretario general), **Amaia Muñoa** (Secretaria general adjunta; Iparralde, Tesorera), **Amaia Aierbe** (Servicios Jurídicos), **Xabier Anza** (Formación), **Iván Giménez** (Comunicación), **Laura González de Txabarri** (Relaciones Internacionales), **Pello Igeregi** (Negociación Colectiva, Salud Laboral, Euskara), **Mitxel Lakuntza** (coordinador de Navarra), **Mikel Noval** (Políticas Sociales, Gabinete de Estudios, Medio Ambiente), **Leire Txakartegi** (Planificación Estratégica, Igualdad de Género, Acción Social, Inmigración), **Eustakio Uranga** (Organización), y **Joseba Villarreal** (Sindicalización).

# XIV. KONGRESU KONFEDERALA. EGITARAUA




## ASTEAZKENA, 2017KO EKAINAK 14

**EUROPA: KRISIA ETA ALTERNATIBAK. NAZIOARTEKO MINTEGIA**

**11.00 - 13.30 Europa, demokraziatik gero eta urrunago.**

**14.30 - 17.00 Alternatibak lantzen eta artikulatzen.**

**17.00 - 17.15 Ondorioak.**

## OSTEGUNA, 2017KO EKAINAK 15

**08.00 - 09.00 Ordezkarien akreditazioa.**

**09.00 - 09.30 Hasiera ekitaldia.**

**09.30 - 09.45 Mahaiaren hautaketa. Mahaiko presidenteak hasiko du Kongresua.**

**09.45 - 10.00 Gonbidatutako erakundeen aurkezpena.**

**10.00 - 10.30 Gonbidatutako erakundeen aurkezpena.**

**10.30 - 11.30 Kargua uzten duen Batzorde Eragilearen Txostena.**

**11.30 - 12.00 Kafea hartzeko atsedenaldia.**

**12.00 - 12.30 Kargua uzten duen Batzorde Eragilearen Txostena.**

**12.30 - 13.30 ELAko erakundeetako ordezkarien hitzaldiak (federazioak eta eskualdeak).**

**Gonbidatutako erakundeen hitzaldiak tartekatuko dira.**

**13.30 - 15.30 Bazkaria.**

**15.30 - 19.00 ELAko erakundeetako ordezkarien hitzaldiak, erantzunak eta Txostena bozkatzea.**

**Gonbidatutako erakundeen hitzaldiak tartekatuko dira.**

**19.00 - 19.15 Bakearen Artisauei omenaldia.**

## OSTIRALA, 2017KO EKAINAK 16

**08.30 - 09.00 Ordezkarien akreditazioa.**

**09.00 - 10.10 Txosten nagusiaren aurkezpena.**

**10.10 - 11.30 Eztabaida.**

**11.30 - 12.00 Kafea hartzeko atsedenaldia.**

**12.00 - 12.30 Gonbidatutako erakundeen hitzaldiak.**

**12.30 - 12.50 Eztabaida (jarraipena) eta testua bozkatzea.**

**12.50 - 13.54 Ebazpenen aurkeztea eta bozkatzea.**

**13.54 - 14.30 Batzorde Eragilea aurkeztea eta hautatzea.**

**14.30 - 16.30 Bazkaria.**

**16.30 - 16.35 Batzorde Eragilearen aurkezpena.**

**16.35 - 17.00 Idazkari Nagusiaren hitzaldia.**

**17.00 - 17.30 Kongresuaren amaiera-ekitaldia.**

EBAZPENA

# GIZARTE-PRESTAZIO SISTEMA UNIBERTSALAREN ALDE: ESKUBIDE SOZIALEN ALDE, KRIMINALIZAZIO ETA XENOFOBIARI AURRE EGIN




Gizarte-prestazio sistema egoki bat funtsezkoa da kohesio soziala izateko. Prestazio sistema hau izango litzateke gizarteko sektorerik ahulenekiko konpromiso kolektiboaren zutabeetako bat, haiek gero eta zabalagoak direlarik.

ELAk aldarrikatu izan du Hego Euskal Herriko biztanle guztiei zor zaiela bizimodu duina izateko aukera, eta horretarako mobilizatu da. Haatik, ez EAEko Diru-sarrerak Bermatzeko Errentak (DSBE), ez eta Nafarroako Errenta Bermatuak (EB) ere, ez dute funtzio hori behar den moduan betetzen. Behar egoeran dagoen jendearen %30 DSBEaren babes sistematik kanpo geratzen da. Nafarroako Gobernuak duela gutxi adierazi du pobrezia larria gero eta ugariagoa dela, ekonomiak hobera egin duen arren. Bestalde, nabarmendu beharra dago behartsuen artean soldata kaskarrak dituzten pertsonen portzentajea gero eta handiagoa dela; honek islatzen du pairatzen duten lan miseria. Diru-sarrera bermatuak handiagoak balira lan-baldintzak hobetuko lirateke.

Nafarroako Gobernuak, bera babesten duten lau alderdien botoarekin (Geroa Bai, EH Bildu, Podemos-Ahal Dugu eta Izquierda-Ezkerra), erabaki zuen EBaren erreformak zenbait hobekuntza ekarri zuen (esaterako, 65 urtetik gorakoak sartzea), baina aldiz bakarrik bizi direnen errenta bermatua urritu egin zuen, eta zenbateko honek Gutxieneko Soldatarekiko (LAGS) zuen lotura hautsi zuen. Erreformaren ondorioz, egungo EBaren zenbatekoa txikiagoa da, kasu gehienetan, aurreko taulak LAGSaren arabera aplikatzen jarraitu izan balira.

Duela egun gutxi, gure kongresuaren atarian, Eusko Jaurlaritzak DSBEaren beste erreforma bat iragarri du. Gogoratu beharra dago EAEn indarrean dagoen zenbatekoa 2008ko legean ezarritakoa aplikatuz gero baino %14 txikiagoa dela (murrizketa hau aurrekontu-legean ezartzen da urtero; esaterako, 2017rako EAJk, PSEk eta PPk bozkatu dute). Eusko Jaurlaritzaren proposamenarekin murrizketak areagotzen dira, eta gizarte-prestazioak jasotzen dituztenak kriminalizatzeko kanpaina hauspotu.

ELAk salaketa gordina egin behar du: DSBEa jaso ahal izateko baldintzak gogortzeko erabakia ustezko iruzurrarekin justifikatu nahi dute (haatik, Jaurlaritzaren txostenak berak aitortzen du iruzurra ia hutsala dela). Aitzitik, guztiz kontrakoa da botere politikoak enpresa- eta kapital-errenten iruzur fiskalarekin agertzen duen permisibitatea; Hego Euskal Herrian urtero 4.000 milioi euro izan litezke.

Kolektiborik ahulenak kriminalizatzearen poderioz, hedabide nagusiek egiten duten moduan, sentipen xenofoboa hedatu egiten da, eta ELAren Kongresuak horri aurre egin nahi dio. Kezkatzekoa da gizarte-prestazioei buruz Jaurlaritzak egin duen inkestan biztanleen %40tik gora ados ez egotea honako esaldiarekin: "Pertsona guztiek, bertoko zein immigranteek, DSBEa jasotzeko aukera izan beharko lukete, behar izanez gero".

Immigranteen eskubideak mugatzeko sentipen hau langile-klasearen zati batean ere hedatuta dago, Europako beste leku batzutan bezalaxe, non eskuin muturreko posizioak klaserik xeheenetan oihartzuna izaten ari diren. Hau dena estrategia baten ondorio da, klase horretako kolektiboak beren artean aurrez-aurre jartzea xede duen estrategia: langabeak enplegua dutenen aurka; aldi baterako enplegua dutenak lanpostu finkoa dutenen aurka; lanaldi partziala dutenak lanaldi osoa dutenen aurka; arlo publikoan dihardutenak enpresa pribatuetan lan egiten dutenen aurka; *paperak* dituzten immigranteak *paperik ez* dutenen aurka; immigranteak berton jaiotakoen kontra...

Estrategia honek murrizketa sozial gehiago justifikatzearekin batera beste bi helburu ditu: batetik, doikuntza neurriak erabaki eta kutxa publikoak arpilatu dituztenen ardura zuritzea eta bestetik, saihestea eztabaida polarizatzea, desberdintasun sozialak izugarri areagotu baitira.

ELAk ez du onartzen zatiketa bilatzen duen estrategia hau, eta eskubide guztiak aldarrikatzen ditu Euskal Herrian bizi diren pertsona guztientzat.

**Ebazpen honen bidez XIV Kongresuak honako konpromisoak hartzen ditu:**

- Jarraitu egingo du aldarrikatzen behar egoeran dauden guztientzat estaldura eskainiko duen gizarte-prestazio sistema bat; sistema horrek emandako laguntzak ezin dute pobrezia-atalasearen azpitik egon.
- Eskari hauen aldeko mobilizazio soziala areagotu, beste erakunde sindikal eta sozialekin batera Euskal Herriko Eskubide Sozialen Kartan egiten ari garen lanaren bitartez.
- Eusko Jaurlaritzak plazaratu duen DSBEaren erreforma Legebiltzarrean lantzen hasiko denez, Bilbon apirilaren 1ean egin genuen mobilizazioari jarraipena eman behar diogu. Halaber, arazo honek Nafarroan ere dagokion oihartzuna izan dezan lortu behar dugu.
- Salatu beharrekoa da biztanleria pobretu eta lanprekarietatea hedatzen jarraitu nahi dutenen ardura politikoa; horretarako ezinbestekoa zaie gizarte-prestazioen maila ahalik apalena izatea.
- Hedabide nagusiek daramatzaten kriminalizazio eta xenofobia zabaltzeko kanpainak salatu behar ditugu; kanpaina horien xedea da prestazioen murrizketak justifikatzea.
- Iraupen luzeko kanpaina bat egin behar da langileen artean, eskubide guztiak pertsona guztientzat aldarrikatzeko, horrela gizarte justuago eta solidarioagoa lortze aldera, zeinetan sentipen eta jokabide xenofoboei aurre egiten zaien.

## Las trabajadoras de las Residencias de Bizkaia acampan los días 9, 10 y 11 en la Plaza Arriaga de Bilbao para con el objetivo de socializar su lucha

# "NECESITAMOS EL APOYO DE LA SOCIEDAD, POR ESO HACEMOS LA ACAMPADA"



Soraya García es delegada de ELA en las Residencias de Bizkaia. Es una de las muchas trabajadoras que lleva más de un año de conflicto para lograr un convenio que dignifique sus condiciones laborales. En este tiempo reconoce que han recibido el apoyo y cariño de mucha gente, un respaldo imprescindible para poder desarrollar una lucha como ésta. Pero no es suficiente. En una carta pública que ha escrito en nombre de todas las trabajadoras de las residencias de Bizkaia en huelga, reconoce lo siguiente: "Si hemos llegado hasta aquí... ya no vamos a parar. Cada vez somos más las que estamos en la calle y no vamos a parar hasta que cambie la realidad de las residencias: que se dignifiquen las condiciones de trabajo y también las condiciones de vida de las personas usuarias. Pero sabemos que solas no podemos, que necesitamos el apoyo de toda la sociedad, y te pedimos tu apoyo, porque es una cuestión social que nos afecta a todos y todas".

Por esto, las trabajadoras de las Residencias hicieron del 9 al 11 de junio una acampada en pleno corazón de Bilbao, en la Plaza Arriaga. Una acampada que buscó –y logró– el apoyo de la sociedad. Durante esos tres días fueron miles las personas que pasaron por la carpa para mostrar su solidaridad con estas mujeres ejemplares que no solo luchan por dignificar su sector, sino que están en primera línea de batalla por unos servicios públicos de calidad.

Fueron tres días en los que hubo de todo: música –La Ochoa, Puro Luego, Iñaki Oliden, Atazál, DJ Manga, Gari, Ane Guria...–; teatro –Bea Kontukantoi, Las Kapritxosas, Las Fellini...–; charlas –Ainara Jiménez, Irantzu Varela, Josebe Iturrioz...–; poesía –Bernardo Atxaga–; grafitis –Dibuja Tolrato–; concurso de pintxos… Tres días en los que estas trabajadoras lograron su objetivo: socializar su lucha y recabar el apoyo de la sociedad. Al fin y al cabo, tal y como recalca Soraya García, "ésta es una lucha de todos y todas".

### ACUERDO EN LA RESIDENCIA MIRAVILLA DE BILBAO

El Comité de Empresa –compuesto por 5 delegadas de ELA– y la dirección de la Residencia Miravilla de Bilbao firmaron el 5 de junio un acuerdo que pone fin a la huelga que de manera mayoritaria estaba secundando la plantilla de cerca de 80 trabajadoras en esta residencia. Gaizka Miguel, responsable de ELA en el sector, destaca que "este acuerdo deja muy a las claras que existen residencias que no están de acuerdo con la estrategia de bloqueo que están llevando las patronales del sector, y deja en evidencia a las patronales cuando dicen que los contenidos pedidos son inasumibles, este acuerdo demuestra que eso no es cierto".

El acuerdo supone una considerable mejora en aspectos como salarios, jornada o blindaje ante la reforma laboral.



**LA LUCHA CONTINÚA. Las delegadas de ELA en las residencias de Bizkaia decidieron el 6 de junio en asamblea dar continuidad a la huelga hasta, como mínimo, el 7 de julio. A día de hoy las trabajadoras llevan más de 200 día de huelga desde que comenzara el conflicto. En la imagen una fotografía de la asamblea del 6 de junio.**

## BIZKAIKO ZAHAR-EGOITZAK, DENON BORROKA




**Nire izena Soraya Garcia (*) da, Bizkaiko zahar-egoitzetako sektoreko langilea eta ELAko ordezkaria naiz, eta 200 egun daramatzat greban.**

**Zuri idazten dizut gure borrokaren zergatiak azaltzeko, eta gurekiko elkartasuna eskatzeko. Izan ere, ekainaren 9, 10 eta 11n kanpaldia egingo dugu Bilbon Udalak baimena ematen badigu, maiatzean egin ez zuena , eta gurekin bat egiteko eskatzen dizugu.**

**Zahar-egoitzekin negozioa egiten duten enpresek eta Bizkaiko Foru Aldundiak gure eskakizunak gehiegizkoak direla diote. Gure egoera, ordea, oso bestelakoa da, eta 5.000 langileok, erabiltzaileek eta horien senideek egunero jasan behar dugu.**

**Egoitzetako langileriaren eskasia eskandaluzkoa da: erabiltzaile bakoitza jasotzeko eta garbitzeko zazpi minutu ditugu, pixoihala aldatzeko hiru minutu (hiru aldiz egunean), askotan langile bat baino ez dago bi solairutan arreta eskaintzeko. Erabateko prestutasuna izan behar dugu, esplotazioren antza duten ordutegiekin, eta gure soldatak ez dira 1.000 eurora ere iristen. Egoera hori oso gogorra da, baina are gogorragoa da zure laguntza behar duen pertsona bat ikustea, zuri zerbait kontatzeko beharra duela ikustea... eta astirik ez izatea berarekin egoteko.**

**Errealitate hori aldatzea zaila izango zela bagenekien; baina imajinatu ere ez genuen egiten, hain latza izango zela.**

**Orain argi daukagu sistema dela aldatu beharrekoa, eta hori oso zaila da, horren atzean estrategikoki hartutako erabaki politikoak baitaude: esplotazioan oinarritutako lan-baldintzak eta gizarteko pertsonarik ahulenenei zerbitzu publiko eskasa eskaintzea beste helbururik ez duten erabaki politikoak, hain zuzen ere. Helburu bakarra dago: enpresa bakan batzuen etekinak zaintzea, haien titularrak foru-aldundiko agintarien ingurune politikokoak direlako.**

**Sistemak orain arte bezala jarraitu dezan, isilik, denari men eginez eta ikusezin behar gaituzte. Horrela nahi dituzte emakumeak, dena berdin mantentzeko.**

**Orain antolatu garenez eta borrokatzea erabaki dugunez, sistemarako "arriskutsuak" garela diote, makurrarazi nahi gaituzte, erabiltzaileei tratu txarra ematen diegula egozten digute, beldurtu nahi gaituzte (kaleratzen gaituzte, mehatxatzen gaituzte, kanpaldiak debekatzen dizkigute...). Halere, txarrena da bigarren mailako herritarrak bagina bezala tratatzen gaituztela, menpeko gisa, manipulatzeko modukoak, erabakitze-gaitasunik ez bagenu bezala, azken finean, begirunea galdu digute. Eta hori egiten dute emakumeak garelako, isilik geratzen ez garen emakumeak, ezarri diguten papera onartzen ez dugun emakumeak, aldundiaren eta haren enpresa lagunen xantaiari men egiten ez diogunak.**

**Halere, honaino heldu bagara... orain ez gara gelditukо. Gero eta gehiago gara kalera ateratzen garenok, eta ez gara gelditukо egoitzetako errealitatea aldatu arte: lan-baldintzak duintzea eta baita erabiltzaileen bizi-baldintzak ere.**

**Dena dela, argi dago guk bakarrik ezin izango dugula, gizarte osoaren sostengua beharko dugula; horregatik babesa eskatzen dizugu, denoi eragiten digun arazo soziala baita hau. Horregatik guztiagatik eskatzen dizugu ahal duzun neurrian gurekin egotea ekainaren 9, 10 eta 11ko kanpaldian.**

**Etorriko zarelakoan gaude. Besarkada handi bat!**

***Bilbo, 2017ko ekaina***

**(*) Honakoa Bizkaiko zahar-egoitzetako langile grebalarien izenean Soraya Garcíak sinatutako eskutitza da. Testu hau ekimenari babesa adierazi dioten lagun eta eragileei banatu zaie.**

# LABURREAN / BREVES




## • Ibermaticako Bizkaiko langileek bi orduko lanuztea egin dute

Bizkaiko Ibermaticako langileek kaleratzeen eta prekarizazioaren aurkako manifestazioa egin zuten ekainaren 7an Zamudioko Parke Teknologikotik hasita. Langileek salatzen dutenez, egoera sostengaezina da. Lan baldintzen prekarizazioa nabarmena da: enpresak ez du hitzarmena errespetatzen, azpikontratazioa etengabe hazten doa, enplegu suntsiketa itzela da (2017an dagoeneko 33 lagun kaleratu ditu) eta ekintza sindikalerako eskubidea urratzen du.




## • CETAren aurkako mobilizazioak Donostian, Bilbon eta Iruñean

Euskal Herriko Eskubide Sozialen Kartak eta Araba, Bizkaia, Gipuzkoa eta Nafarroako TTIP eta CETAren aurkako kanpainek deituta ekainaren 3an CETA hitzarmenaren aurkako mobilizazioak egin ziren Donostian, Bilbon eta Iruñean. Mobilizazio hauek Europar Batasunaren eta Kanadaren arteko merkataritza libreko itunaren (CETA) aurka Atlantikoaren bi aldeetan sortu den mugimenduaren testuinguruan kokatzen dira. Deitzaileek salatu zutenez, itun honen helburua merkataritzari oztopoak kentzea da, eta horregatik oztopo horien kontra dagoen oro suntsitu nahi dute.

## • 2012an kendutako aparteko paga 2018an itzultzea, adar-jotzea da

Eusko Jaurlaritzak esan berri duenez, 2012an kendu zen aparteko pagaren hirugarren laurdena ordainduko du. Zerbitzu publikoetako arduradun Igor Eizagirreren ustez, iragarpen hau adar-jotze hutsa da. "Lehendabizi, gobernuari eskatu behar zaio lehenbailehen ordaintzea langile publikoei zor zaien %50a. Oraindik ere paga dela-eta bere langileekin zorretan dagoen Euskal Herriko administrazio bakarra da. Jaurlaritzak egin behar duena da mahai orokorra lehenbailehen deitzea, sinatutako akordioak betetzeko, langile publikoek galdu duten eros-ahalmena nola berreskuratu negoziatzeko eta arlo publikoan 35.000 kalitatezko lanpostu egonkor sortu eta finkatzeko".

## • Encierro y acampada de la plantilla del Ayuntamiento de Gasteiz

Las y los trabajadores del Ayuntamiento de Gasteiz continúan con las movilizaciones en defensa de unos servicios públicos de calidad. En este sentido, el 5 de junio iniciaron un encierro-acampada en defensa de unos servicios públicos de calidad y unas condiciones laborales dignas. El PNV, después de acordar con la representación sindical presentar una OPE general y recuperar el 5% del poder adquisitivo, ha tirado a la basura estos acuerdos. La situación de la plantilla es alarmante: el 40% no tiene un puesto de trabajo fijo, no se convoca una OPE desde 2006, hay más de 1.000 plazas vacantes, la plantilla ha perdido un 10% del poder adquisitivo con los diferentes recortes, no se ha renovado el convenio colectivo desde 2006…

## • DSBEren erreformarekin pobrezia handituko da

Maiatzaren 31n Eusko Jaurlaritzak Diru-sarrerak Bermatzeko Errentaren (DSBE) aldatzeko oinarrizko dokumentua ezagutzera eman zuen. ELAko gizarte politiken arduradun Mikel Novalek oso irakurketa ezkorra egiten du, eta ziur da erreforma bere horretan ezartzen bada pobrezia handitu egingo dela. "Prestazioak murriztu egin dira azken aldian, eta datozen urteetan ere areago urrituko dituzte. Oraindik ere duina ez den zenbatekoak eta laguntza jaso ahal izateko eskakizunak zorrozteak, estaldurarik gabe uzten du gero eta kolektibo gehiago. Benetako pobrezian dagoen biztanleriaren %30,7ak ez du DSBErik jasotzen. Eta egoerak txarrera egingo du proposatutako erreformarekin". Novalek salatzen dutenez, jasotzaileen indefentsioa erabatekoa da. "Legearen interpretazio subjektiboak eta irizpideen etengabeko aldaketek ez daukate zerikusirik arauaren izpirituarekin. Politika hauen ondorioak herritarrek pairatzen dituzte; areago, eurei leporatzen zaie egoeraren ardura, eta kriminalizatu ere egiten dituzte".

## • ELA propone a la CEN un pacto para que los convenios estatales no empeoren las condiciones laborales

EL 5 de junio ELA y LAB se reunieron con la patronal navarra CEN para alcanzar un acuerdo que impida que los convenios estatales anulen los convenios sectoriales navarros; la estatalización de la negociación colectiva supone empeorar las condiciones laborales de miles de trabajadoras y trabajadores navarros. La reforma laboral de 2011 permite que los convenios estatales puedan reservarse en exclusiva determinadas materias de negociación, invalidando los convenios provinciales de sector. UGT y CCOO están imponiendo desde Madrid convenios estatales con condiciones que en algunos casos reducen los salarios a la mitad. De esta forma, queda clara la necesidad de abordar un acuerdo que en Navarra priorice los convenios propios frente a los que vienen impuestos desde Madrid. ELA emplaza al resto de sindicatos y a la patronal CEN a negociar un acuerdo que lo posibilite.

## • Aumentan las escalas salariales en Mercedes-Vitoria

La semana pasada tuvo lugar en la sede del PRECO un acto de conciliación como consecuencia de dos conflictos promovidos por la sección sindical de ELA en Mercedes. Igor Guevara, responsable de ELA en Mercedes, denuncia el aumento de las escalas salariales y la precarización como consecuencia del nuevo convenio. "Se recoge una brecha salarial cercana al 30% entre sueldos dentro de la multinacional alemana. La flexibilidad y la disponibilidad para los nuevos contratados es enorme. Se puede contratar a alguien con un contrato de 4 horas al día, pero le pueden hacer trabajar 8 horas en cualquiera de los turnos. Asimismo, pueden mandar al trabajador/a modificar su jornada diaria, horario y turno en cualquier momento, todo ello sin modificar su contrato parcial"..

## • Errekaleorren aldeko manifestazio jendetsua Gasteizen

Ekainaren 3an milaka lagunek bat egin zuten Gasteizen *Herria bizirik. Defendamos Errekaleor* leloarekin Errekaleorreko proiektuaren alde deitutako manifestazioarekin. ELAk bat egin zuen deialdiarekin, eta sindikatuaren ordezkaritza zabal batek bertan parte-hartu zuen, Adolfo Muñoz idazkari-nagusia buru. ELAren ustez Errekaleorrek bizitza erdigunean jartzen duen proiektua da, neoliberalismoak ezartzen duen jokoan parte hartzeari muzin egiten diona.

## • Bestelako zerga-eredu baten aldeko giza katea Bilbon

Euskal Herriko Eskubide Sozialen Kartak deituta ekainaren 8an ehunka lagunek giza-katea egin zuten Bilbon bestelako eredu fiskal bat exijitzeko. *Jarri fiskalitatea bizitzaren zerbitzura, ez kapitalarenera* lelopean bildutakoek Eusko Jaurlaritzaren, Confebasken eta Foru Aldundiaren egoitzak lotu zituzten.

Ekimenaren amaieran Euskal Herriko Eskubide Sozialen Kartaren ordezkariek nabarmendu zutenez, fiskalitatea aldatzeko bide bakarra dago: errebeldia, mobilizazio eta antolatze prozesu iraunkorrari ekitea.



**www.ela.eus / @ELAsindikatua / ELA-Facebook**

ELA EUSKAL SINDIKATUA astekaria

Barrainkua 13, Bilbao
Tel. 94 403 77 00
Fax 94 403 77 66

Dep. legal BI-199-00

www.ela.eus

Franqueo concertado
nº 08/207